



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
187.zkia . 2006ko ekaina

ERDI AROKO HIRI ETA HERRIEN SAREA SORTU DA

4-11. Herrian barrena

20-21. Uhin Gain elkartea

12-13. Elkarrizketa: Izurde elkartea

27. Gazte Informazio Bulegoa

16-17. Erdi Aroko herri eta hirien sare

30-31. Maiatzeko demografia

presidentea:Hondarribia

www.hondarribia.org / argitalpenak / Hondarribia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 30
☎ 943 11 02 03
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Alprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



Eguneko menua

- Menu bereziak

- Karla

- Gure terraza goza ezazu

Gara Ama Guadalupekoa

Miluraketa: 943 64 15 40
2020 HONDARRIBIA - GARA



Errehellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO UDAL EUSKALTEGIA



Iritsi da!. Ekaina hemen dugu, eta ikastaroa bukatzeko zorian. Dagoeneko bere onena emana du, baina oraindik ere...agian ezustekoren bat izango dugu. Ikasleak hor ibili dira kofradian dela, kiroldegian dela, Udaleko Euskara Sailean dela... galderak egin eta egin. Euskaraz, jakina, aurtien hutsetik hasi direnak ere hortxe, ausart, bertakoa edo mexikarra izan berdin, eta horren truke hamaiketako gozoa eta afari mendari galantak sartu dituzte estomakan. Sagardotegian ere gure berri izan dute edari gozoa dastatzeko garaia iritsi denean, eta ipuin kontalari eta txirindulari kementsu bat ere ezagutzeko aukera izan dugu. Alde zaharrear barrena ("kalean barrena" esango genuke gure eran) izan ditugu hainbat taldetakoak ikerketa lanean eta Donostiako Untzi Museoan antzinako txalupen berri jaso zuten beste batzuek. Eta gogoratzen ez ditudan ere hor izango dira nonbait. Eta esango duzue, horrez gain ikasi? Bai bada! Hori beste guztiaren gainetik eta aurretik. Batzuk azterketetara joan zaizkigu eta gainontzekoek berriz haien euskara hobetu egin dute.

Eta datorren ikasturteari begira? MINTZALAGUNA. Bai horixe! Orain zuen txanda iritsi da: ez al duzue ezberdina

den zerbait egin nahi? Ikasten ari den eta zuekin euskaraz hitz egin nahi duen pertsona bat ezagutu nahi? Ez zaizue urrikutuko, oso jende interesgarria dabil munduan zehar.

Oso erraza da kontua, guk jendea elkartu egiten dugu: Batetik euskaraz maila polit samarra izanik zeinekin hitz egin ez duen pertsona (euskaldun berria, alegia), eta bestetik edozein euskaldun, ikasia nahiz ez ikasia, berarekin blagan arituko dena. Asteaz ordu bete edo ordu pare bat aski dira (agian gustua hartu eta gehiago ere nahiko dituzue), eta trukean Udalak antolatutako zenbait ekintzatan parte hartu ahal izango duzue, batzuek nahiz besteek, eta jende berria ezagutzeko aukera ere hortxe izango duzue. Kontua euskaraz aritzeko aukera ematea da, eta bide batez ondo moldatzen diren bi pertsona (edo hiru) euskal giroan elkartzea.

Euskaltegiara deitu eta guzti-guztia kontatuko dizuegu, ez naiz hemen luzatuko, baina ederki pasatuko duzue. Aski ondo, ez da hala? Azkar deitu. Badakizue non gauden, betiko tokian, frontoiaren ondoan. Gure telefono zenbakia, 943641216.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK EKAINEAN ETA UZTAILEAN

4- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
11- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
18- ERAUSKIN San Pedro, 22	943 641018
25- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
2- IRAOLA San Pedro, 5	943 641027
9- FIZ Sokoan	943 644316
16- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK EKAINEAN ETA UZTAILEAN

4- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
11- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
18- GARMENDIA Portuan	943 641136
25- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
2- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
9- GARMENDIA Portuan	943 641136
16- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212

Atzegik boluntarioak bilatzeko kanpaina hasi du

Atzegi, Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertso-
nen aldeko erakundeak, gizartea eskuzabaltasuna
eta elkartasunaren bidean norabidetzearen, urtero
burutzen duen "Atzegizale" izeneko sentsibilizazio kanpai-
na abian jarri du. Kanpaina hauen bidez, 4.495 lagunek,
beren izena eta helbidea emanek konpromiso bat hartzea
lortu dute dagoeneko. Adimen urritasuna duten pertsonei
laguntzea eguneroko bizitzako gorabeheretan, alegia.
Honekin mezu positibo bat zabaltzen dute. Izan ere, atze-
gizale izateak kalean adimen-urriko jendea aurkitzerakoan
laguntzeko jarrera eskatzen du.

Atzegizale izateko urratsak

Atzegik egitura anitz dauzka lagundu nahi duenarentzat.
Zentzu honetan, Gipuzkoan 1.957 pertsona dira adimen
urritasuna dutenak. Hau dela eta, erakunde honek aurrera
daraman lanari esker, 2.941 pertsona beren borondatez,
Atzegi elkarteari urtean diru kopuru jakin bat emanek
laguntzen dute. Baina dirua baino, laguntza aktiboarekin
parte hartzea
eskertzekoa denez,
boluntarioaren iru-
dia ere bada. Hauek
urtean zehar,
laguntza eskaintzen
dute Atzegik antolat-
zen dituen ekintza
edota ateraldietan.
Hortaz gain, atze-
gizale izatea ere
bada, noski. Horta-
rako, Atzegik dituen
egoitzetatik pasa,
www.atzegi.org hel-
bide elektronikoan
sartu edota honako
telefono zenbakira
deitu dezakezue:
943 42 39 42.



Atzegiren kanpainaren kartel bat

Aurreratu Eguna, ospatu da Hondarribian



M^a del Rosario Llucia, Maite Cruzado, Maite Pelaez
eta Kotte Ecenarro Aurreratu egunari hasiera ematen

Maiatzaren 20an Santa M^a Magdalena plazan
Aurreratu Eguna 2006 ospatu zen. Eguna zinta
zatitzearekin hasi zen hiru herrien ordezkarien
eskutik, Hendaiaiko alkatea, Kotte Ecenarro; Irungo alka-
te ordea, Maite Cruzado eta Hondarribiko Gizarte
Zerbitzu eta Gazteriako zinegotzia Maite Peláez, eta
Aurreratu elkartearen presidentea den Maria del Rosario
Llucia. Haurrek jolas, tailer, buruhandi, musika, dantzak
eta abarrekin primeran pasa zuten eta elkartearen ezaguta-
razi egin zen beraien helburuetako bat betetz, hau da,
gure ingurukoak sensibilizatzea gizarte gizarteratzailea-
goa izan dadin eta haur ez gaituen familien arazoez
gehiago jakin dezaten.

Egun berean, merkatarik askok oparitutako produktuak
banatu eta zozketatu ziren. Bestalde, Aurreratu elkar-
teak argitaratzen duen bigarren aldizkaria banatu zuen.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu,
bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

"Erdi Aroko Azoka" argazki lehiaketa berriro ospatuko da



Joan den urteko Erdi Aroko azokaren irudi bat

Hondarribiko Udaleko Merkataritza eta Turimo Sailak Hondarribiko 2006.urteko "Erdi aroko Azoka" argazki lehiaketa antolatu du. Gaia aurtengo Erdi Aroko Azokari buruz izango da, Hondarribiko Alde Zaharrean ospatuko dena ekainaren 17 eta 18an, larunbatean, 12:00etatik 22:00etara eta igandean, 11:00etatik 21:00etara. Udalak, aurkeztu diren argazki guztietatik, 2007ko Erdi Aroko Azoka iragarriko duena aukeratuko du.

Partaide bakoitzak gehienez saritu edo argitaratu gabe dauden kolorezko lau argazki aurkez ditzake. Honen neurria 20 x 30 zentrimetrokoa izan behar da. Lanaren atzealdean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdinak. Beraz, kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, N.A.N.ren fotokopia eta telefonoa idatziko da.

Argazki guztiak Udal Liburutegian (Zuloaga Etxean) entregatu behar dira, uztailaren 4an eta 5ean, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Gero, 2007ko ekainean Zuloagan Etxean erakusketa bat egingo da argazki hauekin.

Epaimaiaren erabakia apelaezina izango da. Lehen saria 350 eurokoa izango da, bigarrena 200 € eta hirugarrena 150€. Partaide bakoitzak sari bat besterik ezingo du jaso. Informazio gehiago nahi duenak Udalaren web orria, www.hondarribian.org ikus dezake.

Mendeluko komentuaren proiektuak aldaketak izan ditu

Maiatza erdialdera Udalbatzak, Mendelun komentua duten Karmeldar Oinutsekin egindako hitzarmenean aldaketak egiteko proposamena onartu zuen, alderdi gehienek aldeko bozka jaso zuelarik (EAJ-EA, PSE-EE, PP eta EB). Branka plataformak abstentzioa eman zuen.

Oinarritzko akordioan, Udalak eta mojek lur eremuen doan trukea egitea hitzartu zuten: Jaitzubian Udalak erlijiosei komentu berria eraiki eta gaur egungo Mendeluko Karmeldarren egoitzari, herri eta gizarte intereseko erabilera emateko akordioarekin. Komentu berria, hasieran egiteko zen eremuak Jaitzubiko paduraren gertutasunak dakartzan zortasunak direla eta, leku aldaketa eskatu zuen behin obrak hasita.

"Komentua egin beharreko zonalde berrian, zimenduak jartzearen kostua handiagoa da, bertara iristeko bideari aldaketak egin behar zaizkio eta hasierako kokalekuan egindako lanek partzialki bakarrik balio izango dute", Jau-regiren arabera.

"Guzti honek Udalari dakartzkion kostuak direla eta, Karmeldarrek zera proposatu dute: Udala Mendeluko komentua zaharrari eman beharreko gizarte eta herri-intereseko erabileratik askatzea. Karmeldarrek hori ikuskatzeko ahalmenari uko egiten badiote ere, gure asmoa haserakoa da" amaitu zuen alkateak.



Karmeldar Oinutsen komentua Mendelu auzoan dago

Bidasoa GBLHI zentruaren urteurrena amaitzen ari da

* Hainbat hondarribiarrek burutu dituzte han bere ikasketak

Ikasturte honetan Bidasoa GBLHI, urtetan zehar "La Sindical" bezala ezagutu izan dena, bere 50. urteurrena ospatzen ari da. Urtean zehar hainbat ekitaldi egin dira, nahiz eta azken jarduera datorren ekainaren 27an izango den.

Pasatako martxoan, 50. urteurrenaren ekitaldien barnean, mahainguru batean Bidasoa GBLHIko hiru ikasleohi berezi biltzeko aukera izan zen, Javier Sagarzazu (margolari akua-relista), Jabo Irureta (jokalari oiha eta futbol entrenatzailea) eta Juanma Garate (txirrindulari profesionala). Hirurak arrakasta profesionalaren islada dira.

Gaur egunean ere, ikastetxeak eskaintzen dituen lanbide hezkuntzako ziklo ezberdinetan asko dira Hondarribitik Bidasoa ikastetxera egunero joaten diren hiritarrak.



Jabo Irureta, Javier Sagarzazu eta Juanma Garate Bidasoa Institutuan egindako hitzaldi batean

Arraun Elkarteak instalakuntzak haundituko ditu



Gabarrari kaleko eraikina alokatu dio Udalak Arraun Elkarteari

Udala gaur egun Arraun Elkarteak ontziak babesean edukitzeko dituen zailtasunak konpontzeko irtenbidea negoziaketetan dabil. Horretarako, Pasai Donibaneako Koxtape Arraun Elkarteak, Hondarribian, Eskabetezko inguruan daukan 450 metro karratutako instalazioa erosi edo alokatzeko asmoa du Udalak. Ekainaren 8ko Osoko Bilkuran lokal hau alokatzea erabaki zen, hilerio 2704 euro ordaindu beharko dizkiolarik Udalak Koxtaperi.

Borja Jauregi alkateak hautetsiei azaldu zenez, "Arraun Elkarteak bere instalazioetan ontziak gordetzeko zailtasun handiak dauzka, lekua eskas geratu baitzaie. Momentu honetan, arau urbanistikoez Molla ibibidean Hondarribia Arraunek daukan instalazioak handitzea eragozten dute. Bestalde, Koxtapek Pasaian instalazio berriak egiteko asmoa du eta, hori finantzatzeko, Hondarribian daukan pabiloia saldu nahi du. Akordioa lortzea erraza izan da", adierazi zuen Jauregik.

Gutxienez hiru urteko alokairua ordaindu beharko du Udalak, Koxtapek denbora epe gutxieneko ziurtasun bat behar zuen eta. Hala ere, lokala erosteko aukera izango du Udalak 7 urtetako epea igarota. Orduan, hilerio ordaindutako kuotak azken kopuruari kenduko zaizkio. Hemen-dik 7 urtetara, orain finkatutako prezioan erosiko da gainera.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga, 4
 Anbulategiaren parean
 HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Bidasoa-Txingudi Bordeleko Nazioarteko azokan izan da

Mundu osoko gastronomia, artisa-
sautza, dekorazio, bricolaje,
moda eta turismo eskaintza-
ren ordezkariak hartu dute parte,
aste honetan izandako Bordeleko
Nazioarteko Azoka erraldoian. Maia-
tzaren 20ean larunbatarekin abiatu eta
29an amaitu bada ere, 250.000 metro
kuadrotan zabaldutako 2.000 erakus-
leek euren produktuak aditzera emate-
ko prest agertu dira. Horien artean,
Bidasoa-Txingudi Partzuergoko orde-
zaritza batek erakusleiko bat aurkeztu
zuen. Izan ere, Bidasoa eskualdea-
rentzat ere, Europa mailako azokarik
nagusien artean aurkitzen baita Bor-
delekoa.

Bordeleko erakusleiko handi hartatik,
urtero, 300.000 bisitari igarotzen dira
eta aurtengoan, lehen aldiz, Txingudi-
Bidasoa Mugazgairikoko Partzuergoko
ordezkari bat, eskualdea promozio-
natzen aritu da bertan. Maiatzaren
22an, astelehenean erakusleikoaren
irekiera ekitaldia eskaini zuten ardura-
dunek. Bidasoa eskualdeko ordezkari-
tza politikoari dagokionez, Miguel Angel Paez (Irun), Xabier
Gezala (Hondarribia) eta Jean Claude Borja (Hendaia) izan
ziren ekitaldian, eskualdeko hiru Herriko-Etxeen izenean.

"Bidasoa-Txingudi, hiru hiri helmuga bat" lelopean aurkez-
tu zuen Partzuergoak Txingudiko badia Bordelen. Dena
dela, erakunde honek aurkeztutako erakusleikoa izanik
ere, Udaletxeak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurla-
ritza, Akitaniako Kontseilu Erregionala edota Europar Bata-
sunak osatutako erakunde laguntzaileen zerrenda ikus zite-
keen postuaren dekorazioan. Izan ere, Bidasoa-Txingudi
eskualdearen kokapen geografiko naturala aski berezia
baita.



*Jean Claude Borja, Xabier Gezala eta Miguel Angel Paez hiru hirietako turismo
arduradunak izan ziren Bordelen.*

Hau dela eta, hainbat administrazioaren esku gelditzen da.
Xabier Gezalaren esanetan, "gure kondizioak oso bereziak
dira, gu gara bi Estatuetan sakabanatutako hiru herri, hiru
kultura diferenteak osatzen ditugu eta kuriosoa da gure
aldetik Eusko Jaurlaritza dugula administratiboki, bestalde
Pirinio-Atlantikoetako Gobernua eta denon gaitetikan
Europar Batasuna". Edonola ere, horrek badu abantaila
argi bat. Izan ere, eskualdea ezagutarazteko aukera eta
bide anitz irekitzen direlako. Azkenean hori baita eskualde-
ko ordezkarien helburua: "Denak bat eginik Europar
agertzea, munduan".



**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak bulego berria du



Bulego berriaren irudi bat

Azken aste hauetan Gizarte Zerbitzuen Departamentuak bere instalakuntzak handitu egin ditu. Orain dela aste gutxi arte Bake Epaitegia zegoen lokala hementik aurrera Gizarte Zerbitzuek erabiltzeko izango da, zerbitzuak herritarrei gerturatzeko asmoz. Gogoratuko duzue, Bake Epaitegiak orain ondoko etxean dauka bere egoitza.

Hala ere erabaki hau ez da betirako izango. Une hauetan Udaletxearen atzekaldean eraikitzen ari diren eraikineri igaroko dira gero Gizarte Zerbitzuak. Maite Pelaez zinegotziak esan bezala, "hiritarrari ahal den zerbitzu onenak eskaintzen saiatzen gara. Beheko solairuan egonda, askoz errezagoa da bertaratzea. Eraikin berria amaitzen denean are eta onagoak izango dira zerbitzuak".

Azken asteotan Kale Nagusiko bulego hauen egokitze bat burutu da. Gehienbat lurzoruan egin dira aldaketak. Horretaz gain, arretarako postu bat jarri da sarreran. Ia 50 metro karratu ditu bulego berriak. Goiko solairuan, beste 80 metro karratu ditu Gizarte Zerbitzuen departamentuak.

Ingurugiroaren Eguna ospatu zen maiatzaren 5ean

** Haur eta gaztetxoei zuzendu zitzaizen nagusiki*

Maiatzaren 5ean ospatu zen Ingurugiroaren Eguna, Udaltalde 21 Txingudik, Irun eta Hondarribian garapen iraunkorra sustatzeko lan taldeak antolatutako Aste Berdea-ren barruan. Ume eta gazteei zuzendutako zenbait ekitaldi prestatu ziren bi hirietan.

Hondarribian, Santiago kalean jarduera ugari prestatu ziren haur eta gaztetxoak ingurugiroak daukan garrantziaz ohar daitezen eta sentibilizazio haundiagoa izan dezaten. Asmo horrekin, gune tematiko antzeko bat ipini zen, eta asko izan ziren bertatik igaro ziren haur, gazte eta gurasoak ere, ingurugiroa errespetuaz mantentzeak duen garrantzia haundia dela ikusi zutelarik.

Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak adierazi zuenez, "garrantzitsua da gaztetxoek ingurugiroari ahalik eta errespetu gehien izatea. Beraiek izango dira biharko helduak. .



Haur eta gazte ugari hartu zuen parte Ingurugiro Egunean

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema


ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Ilusargi 3
Tel 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Ikasliburuen mailegua abiatuko du Jaurilaritzak hurrengo ikasturtean

Ikasliburuen mailegu sistemaren aldeko apustua egin du Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak. Hurrengo ikasturtean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 50 ikastetxe publikotan programa esperimentala abian jarriko du, eta sei urteren buruan derrigorrezko hezkuntza sistema osoan ezarriko du. Mailegu sistema ezartzearen kostua 45,9 miloi eurokoa da, fase esperimentala kontuan hartuta.



Egitasmoak dituen helburuak banan-banan azaldu zituen

Tontxu Campos Hezkuntza Sailburuak. "Familiaren gastua nabarmen murriztea, errenta baxuenak dituzten gurasoek hezkuntza doan izan dezaten ahalegintzea, material didaktikoaren zaintza eta erantzukizuna sustatzea" aipatu zituen. Gainera, proposamena egungo hezkuntza sistemaren errealitatearekin lotuta dagoela nabarmendu zuen sailburuak.

Sailburuaren proposamenarekin bat egin zuten alderdi politiko guztiek, PPK izan ezik. EAJ, EA eta PSE-EEko legebiltzarkideek erabateko adostasuna agertu zuten.

Maileguaren auziak herriko ikasle eta gurasoengan eragina dauka

Turismoko profesionalen mugazgandiko topaketa Ficoban egin da

Ficoba erakusketazokak baliabide

turistikoen lehenengo mugazgandiko topaketa antolatu du. Euskal Herriko Kostaldeko Eskaintza Turistikoen Mugazgandiko Workshoparen izenburupean aurkeztu zuen Iñigo Marquet, Ficobako



Ficoban egin diren feriek arrakasta handia izan dute

gerenteak, maiatzaren 31ean. Honela, Bioterra 2006 azokaren ateak itxi eta bi aste laburretan Irungo erakusketazokak bisitari berriak jasoko ditu, ekainaren 12an.

Egitasmo honen helburu nagusia Gipuzkoa eta Iparraldeko turismo eskaintza bateratzea izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarteko Sailak, Euskadi-Bearneko Turismo Departamenduarekin elkarlanean bultzaturiko topaketa profesionala dugu honakoa. Iñigo Marquetek esandakoaren arabera, "hona-ko hau ez da azoka bat berez izango egun batekoa delako, orduan turismo esparruko profesionalen topaketa dela esan dezakegu".

Zentzu honetan, topaketaren egiturak, erakuslehoiak eta bisitari profesionalen kudeatzea Ficobaren ardurapeko lana izanik, dagoeneko 25 erakusketarik eman dute izena. Horietariko %75a gipuzkoarrak eta beste laurdena Frantziako Pyrénées Atlantiques departamendukoak. Hala ere, Marquetek astekari honi egindako adierazpenetan esan duenez, "azkeneko egunetan gora egin dute Iparraldetik datozten profesionalen eskaerak".



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Siso Fernandez de Avila nagusitu zen Marlaixkako Eskolarteko Xake Txapelketan

* 28 gaztek hartu zuen parte urtetik urtera hazten doan jarduera honetan

Hondarribia-Marlaixka Xake Elkartek urtero antolatzen duen Eskolarteko Xake Txapelketa burutu da maiatzean. Aurten, ikastetxe desberdinetako 28 gaztek hartu zuten parte, maila ona erakutsiaz.

Haur eta Lehen Hezkuntzako mutil eta neskek xake partida ugari jokatu behar izan zituzten maiatzaren 24 eta 31n. Partida azkarrak izan ziren, 6 minutuko iraupena zuelarik norgehiagoka bakoitzak. 6 txandaz osaturiko suizar sistema bat da joku hau, eta Almirante Alonso kalean dagoen Marlaixka Elkartearen antolatu zen.

Partehartze zabala izan zen, eta maila polita erakutsi zuten neskamutil gazteek. Hurrengo urterarte!

Sailkapena honako hau izan zen:

- 1.- Siso Fernández de Ávila (5 puntu 6 partidatan)
- 2.- Jon Telletxea (5 puntu 6 partidatan)
- 3.- Eneko de la Linde (5 puntu 6 partidatan)
- 4.- Ortzi Olasolo (4,5 puntu 6 partidatan)
- 5.- Telmo Urresti (4 puntu 6 partidatan)
- 6.- Martxel Eizagirre (4 puntu 6 partidatan)
- 7.- Jon Oronoz (4 puntu 6 partidatan)
- 8.- Jon Alonso (4 puntu 6 partidatan)
- 9.- Josu Torres (4 puntu 6 partidatan)
- 10.- Ander López (3,5 puntu 6 partidatan)

Ezkerretik eskuinera. Jon Telletxea, Siso Fernandez de Avila eta Eneko de la Linde, Marlaixka Elkartek antolatzen duen Eskolarteko Xake Txapelketan podiuma osatu zuten gazteak.

11.-Ainara Ruiz (5 puntu 3 partidatan) Lehen emakumezkoa

- 12.- Jon Xabier Gezala
- 13.- Ander Gillorme
- 14.- Ion Olasagasti
- 15.- Eider Rodríguez
- 16.- Ander Ruiz de Munain
- 17.- Asier Olaizola de Diego
- 18.- Ignacio Fernández
- 19.- David Tobiasz
- 20.- Sara Amunarriz
- 21.- Unai Medrano
- 22.- Olaia Ferreira
- 23.- Sofía Jimenez
- 24.- Borja Aramburu
- 25.- Luis Olazabal
- 26.- María Odriozola
- 27.- Nerea Urretavizcaya
- 28.- Beñat Sagarzazu



pa
inmobiliaria
gestoría
administración de fincas

pérez alkain

Marlaixka 2011 18
20086 Hondarribia
Tel. 943 643 557
Fax. 943 643 557
E-mail: galdac@perezalkain.com

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Hiru hirietako 550 haurrek hartu zuten parte eskolarteko kirola jaialdian

Hendaia, Hondarribia eta Irungo 550 ume bildu ziren ekainaren 3an Irungo Dunboa ikastetxean, Bidasoa-Txingudiko eskolarteko kirolaren jaia ospatzeko. Bertan, 10 eta 12 urte arteko umeek hamaika kirol arlotan saiatu eta aritzeko aukera izan zuten: atletismoa, tenisa, aerobika, rugbya, beisbola, patineteak, herri kirolak, malabareak edota xakea, denak, hiru hirietako kirol elkarreetako kideen laguntzarekin.

Hiru hirietako umeak batzeko ekimena Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoak antolatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kirolaren Eurosareak, Bidasoa Bizirik eta hiru hirietako Udalek lagunduta.



Irungo Dunboa ikastetxean bildu dira aurten Bidasoa bailarako gazteak

Ekainaren 24an Sagardo Eguna ospatuko da Zumardian



Iaz Santiago kalea Sagardo Egunean jendez beteta egon zen

Iaz lehen aldiz antolatu zuen Olagarro Elkarreak Sagardo Eguna Hondarribian. Santiago kalean izan zen eta jende ugari biltzea lortu zuen. Antolatzaileek ustez, "arrakasta handia izan zen, eta aurten berriz ere antolatzea erabaki dugu".

Bigarren edizioa tokiz aldatu egingo da. Zumardian izango da, ekainaren 24an eta arratsaldeko seietan. Bertan bilduko dira Gipuzkoako hainbat sagardotegi, bere produktu kuttuna eskaintzeko asmoz.

Hurrengo egunean, gune berean, Brokante eta Bilduma azoka antolatu du Kultura Departamentuak, goizeko 10.00etatik aurrera.

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

RAFAEL IRAZU

Izurde Elkarteko presidentea



Izurdea animalia aski leiala eta azkarra da, baina Hondarribian ugaztun soila baino zerbait gehiago ere bada izurdea -gure hiriko elkarte batek izana agian ez, baina izena, behintzat, zor baitio hain izaki duinari-. Horregatik, ekaineko elkarrizketaren txokoa dagoeneko ibilbide luzea duen elkarte honi eskaini diogu, eta bertako lehendakari den Rafael Irazu-ekin izan gara berriketan garai batean Izabia gisa sortu eta egun Izurde izenaz ezagutzen dugun elkarteaz.

Noizkoa da Izurde? Nolako elkarte da?

Izurde ur azpiko jarduerari loturik dagoen elkarte da. Ohiko elkarteen antzera, gureak ere idazkaria, bokalak, diruzaina... ditu eta dagoeneko 35 urte joanak dira elkarte sortu zenetik, hortaz, ezin esan atzo goizekoa denik. Bazkide kopuruari dagokionez, oker ez banago 110 bazkide inguru ditu eta gehienak gizonezkoak gara -nahiz eta emakume batzuk ere badauden gure artean-.

Nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Urpeko jarduerekin zerikusia duten ekintzak antolatzen ditugu. Hegatsekin egiten den Bidaso-ako Jaitsiera prestatzen dugu, urpeko ikastaroak ere egiten ditugu eta baita hegatsekin egindako urpeko arrantza lehiaketak ere.

Zuen artean ondo moldatzen al zarete? Zer egin behar du bazkide izan nahi duen edonork zuen elkartean sartzeko?

Gure artean oso giro ona dago eta bazkide izan nahi dutenei eskatzen dieguna zera izaten da: guk antolatzen ditugun ekintzekin loturaren bat izatea. Urpean igeri egiten jakitea ez da derrigorrezkoa, nahikoa da ur azpiko ekintzekin lotuta egotea, esate baterako, igeriketarekin, arrantzarekin, argazkigintzarekin, biologiarekin... Esparru zabala hartzen du gure elkarteak.

Zeintzuk dira orain bertan dituzuen beharrak?

Arazo bat badugu. Izan ere, bazkideentzako botilak betetzen ditugu eta konpresorea aldatzeko premia dugu. Horrekin batera, Europar Erkidego-ko arauetara ere egokitu beharra daukagu.

Laguntzarik jasotzen al duzue?

Bai, udalak urtero laguntza bat ematen digu eta



Ainara Elizondo

eta Txingudiko Partzuergoak ere laguntza luzatzen digute. Horretaz gain, beste edozein elkartek bezala kuoten bitartez egiten diegu aurre elkarteko garbitasuna, argia eta bestelako gastuei.

Jende asko etortzen al da elkartera?

Bai; bada arrantzan aritzen den talde bat eta urpean igeri egiten aritzen dena. Gainera, urpean igerian ikasteko ikastaroak antolatzen ditugu urtero.

Zeintzuk dira zure betekizunak elkartean? Noiz utziko duzu kargua?

Dagoeneko 10 urte daramatzat elkarteko lehendakari gisa eta egia esan behar badizut, kargua gustura utziko nuke, lan handia baitago hemen. Bidaso-ako Jaitsiera antolatzea, adibidez, neke handiko lana da, jait-siera nazioartekoa baita. Jaitsieraren orain arteko ibilbidean, kirolari frantziarrek, asturiarrek... parte hartu izan dute eta kantitatean ez ezik kalitatean ere gora egin du jaitsierak azken urteotan.

Kontuak kontu, itsasoa gustuko duenarentzat eta urpeko ekintzetan murgildu nahian dabilen orori

zuzenduta, hona Izurde elkarteko gonbita. Informazio



Izurde Elkartea duela 35 urte dabil lanean, eta bere egoitza Molla ibilbidean dauka.

gehiago behar izanez gero, hurbil zaitezte Puntal aldera, eta bertan izango dituzue elkarteak antolatzen dituen jardueri buruzko xehetasun guztiak.

BAR · RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Irudi baten aurrean



Martin Iturbe

Joan zen ostiralean bildu ginen. Urterokoari aurrerabidea eman genion. Berrogeita hamar inguru izango giñen, gizaseme eta emakume. Haurrik eta ume txikirik ez, zera aipatzen ari naiz: Kasino Zaharraren aurreko zelai atsegin horretan urtero, maiatzaren azken aldera, Guadalupeko Ama Birjiñaren irudiaren aurrean halakoxe otoitalditxo bat egiten dugu.

Jubilatuena taldeko arduradunek hartu zuten erabaki hori orain urte batzuk. Inguruko harresian, hazulo moldatu batean, Guadalupeko Ama Birjiñaren irudia jarria dago, txukun aski zaindua, ongi txukun ere! Halakoxea da bizi dugun urtegarai ere, mota ugari-tako lore dotorez apaindua agertzea da aipatutako irudiaren albo-ingurua. Kandela piztuak ere ez dira falta izan.

Eta hantxe, eguerdi aldera, esan bezala maiatzaren bukaera ateetan egiten da bilera. Giro gozos ukitutako elkartzea izan ohi da. Elkarri egunonak eman ondoren, nere esku izaten da bi hitz esatearen egitekoa. Sermoia ez da luzea izaten, beharrik ere ez!

Batzuk besteokin elkartzeak daraman mamiaren gozoa aipatzeaz batera, pakearen aldeko eskariak egin ohi ditugu. Inguruak ere egia esan, horrelako ekintza batetarako giroa eskaintzen du. Udaberria gainezka, arbolak berde arnasez beteta, txoriak bikoteka hurbilean lotsagabetsu...

Aldareko mahaiak sukaldeko mahaia beharrezko jarraipen izan duenari bizia emanez, otoitzaldi hau ere beste mahai baten inguruan burutzen da. Zizkamizka ugariak, mahastzuku atseginez bustita, erraz aurkitzen dute eztarirako bidea.

Dena den, gauza bat agertzen da guzti honen erdian, harriga-

rria dena eta eta zer pentsa ematen duena. Esan dut, Amabirjiñaren irudia harzulo batean kokatua dagoela. Baina, oi zeruak eta oi inpernuak! Bruñi-zirizko hesiz babestua agertzen da Guadalupeko Ama Birjiñaren irudia. Ihes egingo ote duenaren beldurrarengatik jarriak? Zorigaiztoko joko ilunen astindua honaino ere iritsi da. Behin eta berriz, pakean zegoen irudia ebatsia izan da. Eta orain, burnizko babesa jarri zaion honen ondoren, makilaz edo, irudia txetzen saiatu da norbait behin eta berriz.

Nahi duenak nahi duena esango du. Baina nik, orain hurrengo batean, Hermandadeko paretatik San Pedroren irudia kendu zutenean egin nuen bezala, protesta egiten dut, eta asko eskatzea ez bada, pakean dagoena pakean usteko eskatzen dut.

Beste edozeinek bihotzez estimatzen duenik nik ez dut itsustuko, horixe behar genuke! Baina nik eta beste askok estimatzen dugun irudia, eta irudia ez itsusteko oihu egingo dut. Ni Martin naiz!



Amabirjinaren irudi bat, guztiz libre zegoeneko.

Arrantzaleek antxoaren kanpaina eten eta atunaren denboraldi hasiera oparoa izan dute

Antxuaren harrapaketa urriak direla eta, Eusko Jaurilaritza, Espainiar Arrantza Ministeritza eta Europar Batzordea urgentziazko erabakiak hartzera behartuak ikusi dira. Bitartean, arrantzaleak lehorrean gelditu dira, maiatzaren 24an amore eman da eta itxaropenik gabe itsasotik itzulita.

Arrantza kanpaina tamalgarriak sortutako urritasun ekonomikoa, diru-laguntzen inguruko ezadostasunek areagotu dezakete. Egoera normala balitz, aurtengo antxuaren kanpainarekin, dagoeneko, arrantzontziek hiru milioi tona porturaturik edukiko lituzkete. Baina azken datuek diotenez, Euskal Autonomi Erkidegoan 650.000 tona besterik ez dira lehorreratu. Hau dela eta, ez itsasoan, ez lehorean ere, arrantzaleek ez dute atsedunik. Honela, maiatzaren 23an, asteartea-ekin, Gipuzkoako Kofradiek Getarian ezusteko bilkura bat burutu zuten. "Urgentziazko bilera egin dugu, berri izan dugulako Kantabria eta Asturiaseko arrantzaleak lehorrean gelditzeko erabakia hartu dutela", aitortu zuen Aritz Martinezek bilkutatik ateraberrizela.

Egun hartan bertan, Gipuzkoako arrantzaleek ere berdin egingo zutela adostu zuten, baina bateraturik egitekotan. Hortaz, Getaria eta Orioko Kofradiek itsasora egingo zutela aditzera eman zutenean, besteek ere itsasoratzeri behartuak ikusi ziren. "Bilkura berriak

egingo ditugu Gipuzkoako guztiok bat egiteko, zeren ez gaude elkartuak oraindik", aurreratzen zuen Norberto Emazabelek.

Edonola ere, itsasoratziak egoera larritu besterik lortuko ez zuela argi zuten Hondarribiko arrantzaleek. Izan ere, arrantzontzi batek 400 euro behar ditu egunero ibilbidean kontsumitzen duen erregaia ordaintzeko soilik. Ateraldiak, kasu askotan 18 ordutako bidean, antxua harrapatu ezean, noski, defizitarioak dira beraz. Aritz Martinez arrantzalea goibel agertu zen itsasoratu beharraren aurrean: "Ziur atera beharko garela, baina egia esanda, joango gara inolako itxaropenik gabe", esan zuen unaturik.

Maiatzaren 26ean, ostiralarekin urgentziazko bilkura berri bat burutu zuten Gipuzkoako Kofradia eta arrantzaleek Ondarrun. Bertan, antxuaren kanpaina amaitutzat jotzea eta lehorrean gelditzeko erabakia hartu zuten. "Erabaki egokiena da egoera kontuan hartuta", esan du arrantzaleen bozeramaile batek. Orain itsasoa alboratu eta bulegoetan aurkitu beharko dute arrantzaleek itsasoak eskeini ez diena. Honela, datorren astean, Madrilerat egingen dute Kofradiek Arrantza ministrarekin negoziatzeko. Aritz Martinezen arabera, "arduradun politikoei erabaki zuten beda irekitzea, eta beraiek eman beharko dizkigute kalteordainak".





Red de
Ciudades y Villas
Medievales

Hondarribia izango da “Erdi Aroko berriaren lehendabiziko



Madrilgo Chamartin geltokian hartu zuten trenea.



Sigüenza-ko Paradorean izan zen hitzordua.



Aurkezpenean hainbat komunikabide izan ziren.

Gure herria izango da ekainaren lehen egunean Sigüenzan (Guadalajara) sortu zen Espainiako Erdi Aroko herri eta hirien sare berriaren lehen presidentea. Ohore hori, Borja Jau-regi alkateari dagokio, Hondarribitik atera baitzen sare hau sortzearen ideia.

Orotara, Espainiako 9 hiri biltzen dira, ertaroko ondare garrantzitsua biltzen dutenak, eta gutxigorabehera populazio bera aurkezten dutenak. Hondarribitik aterako bagina, eta errepidearen ildo jarraituta, honako bide hau egingo genuke: Biasteri (Araba), Lizarra (Nafarroa), Sos del Rey Católico (Huesca), Almazán (Soria), Sigüenza (Guadalajara), Consuegra (Toledo), Coria (Caceres) eta Olivenzara (Bada-joz) iritsiko ginateke.

Aurkezpen ekitaldiari, Francisco Domingo Sigüenzako alkateak eman zion hasiera, eta ondoren, Borja Jauregik sortu berri den elkartearen helburuak aipatu zituen. Ondoren, gainontzeko alkateek bere iritzia eman zuten.

‘Ez da solik zirkuito turistiko bat, historia, kultur eta sozial aldetik aberastasun haundia dauka eta. Hiri bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta denon artean eskaintza bikain bat egin dugula



ko herri eta hirien sare” o presidentea



uste dugu' esan zuen Jauregik.

"Sare berri honek erreferentzi puntu bat izan nahi du kalitatezko turismo baten ikuspuntutik, kultura eta gastronomia kontutan izateko faktoreak izango direlarik" gaineratu duen Jauregi alkateak.

9 hirietako alkateak eta Turismoko zinegotziek zuzendu zuten Sigüenzan egindako ekitaldia. Bertan argi utzi zen zein den egitasmo berriaren helburua. "Kultur eta historia aldetik ondare garrantzitsua duten zenbait hirien arteko loturak sortzea da asmoa" esan zuen Xabier Gezala Turismo Zinegotziak, "gas-

tronomia, kultura eta natur guneek eskaintzen diguten aukera uztartuz".

Erdi Aroko Hiri eta Herrien sare berri honen lehen pausua, 9 hirien eskaintzak agertuko diren liburuxka baten argitalpena izango da. Hortaz gain, webgune bat sortu berri da (www.ciudadesyvillas-medievales.com). Hala ere, oraindik asko dago egiteko, horien artean, "Frantzia eta Portugaleko hiriak edo herriak sare berri honetan sartzea. Asmoa, 20 edo gehienez jota, 25 hiri edukiko lituzkeen sare bat sortzea da" amaitu zuen Gezala zinegotziak.



Alkateak fundazio akta eskutan dutela.



9 alkateek asmo berriaren ezaugarriak eman zituzten.



Jauregik sare berriaren presidente bezala hitz egin zuen

Itsas kiroletan aritzeko aukera Arraun Elkartean

Urtero bezala, Arraun Elkarteak bere kirol jarduera zerrenda zabala luzatzen du, bertatik igarotzen diren guztiek burutu ditzaten. Udako hilabeteetan praktikatzen diren arrauna piraguismoa egiteko parada ezinhobea daukagu, eta hortaz gain, gimnasioa ere ezin ahaztu. Hona hemen Arraun Elkartearen eskaintzen dena laburbilduta:

PIRAGUISMO ETA ARRAUN IKASTAROA

- 1 Txanda: Uztailak 3 -14
- 2 Txanda: Uztailak 17 -Abuztuak 1
- 3 Txanda: Abuztuak 2 - 16
- 4 Txanda: Abuztuak 17 - 30

Ordutegiak: Lehen taldea 9.30etatik 11.00etara, eta bigarrena 11.15etatik 12.45etara

Prezioak:

Piragua.....38 € (Bazkideak 34 €)
Arrauna.....34 € (Bazkideak 30 €)

(Izena emateko ekainaren 12tik abuztuaren 16 arte)

PIRAGUEN ALOKAIRUA (UZTAILA ETA ABUZTUA):

-Arraun Elkartean, astelehenetik

ostiralera 16.00etatik 20.00etara. Larunbatetan 9.30etatik 13.00etara
-Hondartzan: Egunero, astelehenetik igandera, 11.00etatik aurrera.

Prezioak:

Banakako piragua.....5'00 €/Ordua
Piragua bikoitza.....8'00 €/Ordua

TALDE ANTOLATUAK:

Monitore bat kontratatzeak aukera dago. Orduko 18.00 euro ordaintzen zaizkio

Gidatutako ibilaldiak badian zehar (gutxienez 4 pertsona)

Bidasoa ibaiaren jaitsiera (gutxienez 8 pertsona): 3 ordu.....24'00 €/PERTS.

Irteera Biriatur da eta helmuga Arraun Elkartean. Izena emateko uda osoan, irailaren 2 arte

ARRAUNEKO ONTZIEN ALOKAIRUA

1 eta 2 arraunlarientzako yola-k, eta skiff-ak.

Prezioa:

-Banakakoa: 6'00 €/ordua.

-Bikoitza: 10'00 €/ordua. (uztaila eta abuztuaren soilik)

PIRAGUEN ALOKAIRUA ETA BILTEGIA:

Piraguen alokairua.....130'00 €
Urte osorako
Piraguen biltegia.....115'00 €/Urte osorako

ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA:

Aerobik, Spin, Body Combat, Body Building, Muskulazioa, Mantenimenduko gimnasia, Gimnasia terapeutikoa, IAI-DO, Sauna, Masaia..... Hilero 33 Euro.



Foru Aldundiak 110.000 euro erabiltzen ditu hondartza garbitzeko

Erainaren 15ean emango zaio ofizialki hasiera aurtengo hondartza denboraldiari, eta aurturaren 15etik Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua arduratuko da Gipuzkoako hondartzen udako garbiketaz. Horretarako, aurtengo gastuen aurreikuspenean 730.000 euro xedatu dira, honela banatzekoak: o Hondarribia: 110.000 euro, Orreaga: 90.000 euro, Zarautz: 130.000 euro, Getaria: 70.000 euro, Zumaia: 110.000 euro, Deba: 100.000 euro eta Mutriku: 120.000 euro.

Baliabide horiekin, praktikan, udalerriri horietako hondartzetako garbiketaren %80 ordainduko da, eta hortik aurrerako %20a udalek ordainduko dute nork berea. Hondartzetako garbiketaren zerbitzuak hiru fasetan banatzen dira:

- **UDA AURREKO FASEA:** Urtero bezala, maiatzaren 15etik 31ra bitartean egin dena. Fase honetan hondartzetako harea-aren saneatze sakona egin da, zakarrontziak jarri dira eta, laburtuz, hondartzak denboraldiaren hasierarako prestatu dira.

- **UDAKO FASEA:** Ekainaren 1etik irailaren 30era bitartekoa

da. Fase honetan garbiketaren lanak areagotu, eta hondartza guztietan egunero egiten dira: bi edo hiru egunetik behin harea bahetzeaz gainera, eskailerak, arrapalak, kai-muturrak eta hondartzekin lotura duten beste inguru batzuk garbitu egiten dira.

- **NEGUKO FASEA:** Udako denboraldiaren bukaeratik hurrengoaren hasiera bitartekoa da. Fase honetan astean behin egiten da hondartzen garbiketaren.



Bidasoa XXI elkarteak hondartzako jarduerak antolatuko ditu udan

Irun Bidasoa XXI igeriketa elkarteak 96.000 euroko diru laguntza jasoko du Hondarribiko Udalarengandik, maiatzeko Udalbatzaren erabakiz.

Irun Bidasoa XXI elkarteak arduratu izan da azken urteetan udan Hondarribiko hondartzan jarri ohi den Tintin Klubeko ekintzak eta igeriketa ikastaroak kudeatzeaz. Udaleko Prebentzio Komunitario zerbitzuak Ondar Kirolak izeneko programaren barnean dago ehundaka haur eta gazte biltzen dituen ekimen hau.

Udalak emandako diru laguntza honekin, material berria erosi ahal izango da, hala nola: kioskoak, kirol materiala, mastak eta hesiak, besteak beste.

Udalbatzak talde politiko guztien aldeko botoarekin onartu zuen Bidasoa Irun XXI igeriketa elkarteak eginiko eskaria eta dirua lehenbailehen talde honen eskura jartzea erabaki zuen. Guztiak ekimenarekin ados agertu ziren, iaz izandako arrakasta kontuan izanik.



Bigarren urtez Bidasoa XXI elkarteak arduratuko da hondartzako jarduerak kudeatzeaz



Pilota Eskolan haur mugimendu oso haundia dago

Haurrentzat pilota ikastaroa antolatu da uztailean

Hondarribiko Pilota Eskolak urtero bezala uztailean Uda Pilota Ikastaroa antolatuko du. Uztailearen 1etik aurrera izango da eta bertan benjaminetatik kadete bitarteko neska mutilek parte hartzeko aukera izango dute.

Elkartetik esaten zaigunez, ekintza ezberdinez osatua egongo da jarduera, besteak beste pilota modalitate ezberdinak frogatzeko aukera, esku pilotako jolasak, eta irteerak. Izene-mateko epea ekainak 27an bukatzen da, horretarako Pilota Eskolara jotzea ezinbestekoa izango da. Telefono bidez, 620171515 zenbakiko erantzungailu bidez, edota posta elektronikoa erabiliz: hondarribikopilota@gmail.com.

eukeni optika

Surflariak Uhin Gain elkarteak sortu dute

Hondarribiko zenbait surflarik Uhin Gain izeneko elkarte berria sortu dute, kirol honek dituen zaleak batu eta herriak zein erakunde publikoek behar bezala aintzat hartzeko helburuarekin lanean abiatu dira, Bidasoamedia astekarian irakur dezakeguenez.

Elkarteak Udalaren laguntzarekin osatu dute, eta orain arte, kirolari hauek Hondarribian aurkitzen zituzten egituren gabeziaren oztopoei aurre egiteko sortu badute ere, hezkuntzarekin eta ingurugiroarekin loturiko egitasmo ugari dituzte ikusmugan.

Surfaren zaletu asko dira herrian. Hondarribiko itsasertzek aukerak eskaintzen dituzten arren, Hendai, Donostia, Miarritze, Hossegor edota bestelako hondartzetara joaten dira bertoko surflariak bere kirola praktikatzera. Hala ere, bertan elkarerik existitzen ezenez, surflariak kanpoko surf elkarteetara ihes egin beharrean ikusi dira urte askotan.

Hau dela eta, zaletu hauek indarrak batu eta herrian gutxiengo azpiegiturak bermatuko dituen elkarte berri sortu dute. Uhin Gain du izena, eta Hondarribiko

Udalarekin negoziazioetan aritu ondoren, surflariak materialeak gordetzeko eta egitasmoak antolatzeke egoitza lortu dute.

Mikel Agirre, Uhin Gain elkarteko kideak dioenez, "orain egoitzarekin surfaren etorkizuna antolatzeke aukera berri bat dugu, eta helburu asko ditugu. Eskualdeko zaletuak batzea eta kirolari gazteak motibatzea zen gure helburu nagusietako bat" dio Mikelek.

Jaizkibelgo uretan surflari ugari daude era honetako olatuak hartzeko prest.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Aldi Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Uhin Gain

Surf Elkarte Hondarribia



Irudi hau Jaizkibelen ateratakoa da, ikusgarria benetan.

Ikastaroak antolatu dira

Hala ere, behin elkarte sortu dela eta federatzearen oztopo nagusia konpondurik, Uhin Gain elkarte kideek maite duten kirola suspertzeko bide berriak bilatzen dihardute. Izan ere, elkarteak egoitzan dituen baliabideak baliatuta, bodyboard eta surfean abiatzeko ikastaroak antolatu dituzte. Sortu bezain laister, ikastetxeekin harremanetan jarri eta lan honetan abiatu dira dagoeneko. "Eskola kirola programan sartu gera, Hondarribia eta Irun-go ikastetxe guztiekin harremanetan jarri ginen eta gure baldintzetan maiatzaren 22an hasi ginen ikastaroekin", azaltzen du

Uhin Gain elkarte kideak. Ikastaro hauek antolatzeko, Surf eta Bodyboard Eskola sortu du elkarteak eta eskaeraren arabera, irakasle tituladunek eskainiko dituzte klaseak. Hortarako, taula, surf-jantziak, materialea orohar eta garraiorako furgoneta baten beharra izan dute.

**Informazio gehiagorako,
www.jaizkibelsurf.tk webgunean
aurkitu ahal izango duzue.**

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

TRUCK
truck
diskoteka
foru kalea, 13

ARRANDEGIA
ITSAS ALDE

C/ Markos Deunaren Enperantza, 7
Puntale Auzoa
70280 HONDARRIBIA
Tel.mobila: 609 414145

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 04 88

Juana Cortes Amunarriz hondarribiarrak Cordoban narrazio sari bat irabazi du

Juana Cortes Amunarriz hondarribiarrak sari berezi bat irabazi du duela gutxi Cordoban. Hain zuzen, Torrecampoko Hiria VI. Narratiba Saria irabazi du, bertan aurkeztu ziren 485 lanen artean onena izan zelarik 'Sonrisas' idatzia.

39 urte ditu Juanak, eta egun Madrilén bizi da. 1989. urtean hara joan zen, eta orduz geroztik, han lanean hasi eta bizitza han finkatu du. Hala ere, familia osoa gure herrian dauka eta sarritan etortzen da. "Saria jaso nuenean, jende askoren deia jaso dut, Institutuan eta Unibertsitatean ikaskideak izan ziren jende askorena. Hortaz gain, nere gurasoek ere Hondarribian zorianak jaso dituzte, eta neretzat oso pozik egoteko modukoa da" dio Juanak.

Sari ugari jasotakoa

Juana Cortesek 1983. urtean jadanik Hondarribian literatura sari bat jaso zuen, orduan oso gazte zelarik. Betidanik oso gustukoa izan du literatura eta narratiba, eta 2002. urtean Madriléko "20 minutos" egunkariaren mikroerrelatuen lehiaketa irabazi zuen. Bi urte geroago, Madriléko Idazleen Eskolak antolatutako amodio gutunen lehiaketan bigarren sailkatu zen.

Iaz ordea, Behe Aragoiko ipuin laburren lehiaketa irabazi zuen eta Palentziako Udalak antolatzen duen lehiaketan ere saritua izan zen.

2006an, Badajoz-eko Ribera del Fresno herriko amodio gutunen lehiaketa irabazi du, Alcorcón hiriko lehiaketan bigarren sailkatu da, Cáceres-ko Jarandilla de la Vera herriko lehiaketan nagusitu da, eta Calafell-en amodio gutunen lehiaketa ere irabazi du.

Idazleak dioen bezala, "idaztea oso gustoko dut, egunero

altzatzerakoan beti badago zerbait kontatzeko eta idazteko. Horregatik, denak merezi du eta nik idazten jarraitzen dut".



Juana Cortes Amunarriz hondarribiarrak duela urte asko Madrilén bizi da. Sari garrantzitsua irabazi berri du



Hondarribitik Marseillara

Hondarribiko 5 gazte Marseillan egon dira 10 egunez kale hezitzaileekin batera.

Europako Erkidegoko "GAZTERIA Programa" barruan kokatzen da ekintza hau. Hondarribiko Prebentzio komunitarioko Udal Zerbitzuak "Y.A.P." (Young people for Adequacy of their Participation) izeneko nazioarteko sare batean urteak daramatza, gazteen patrtaidetza bultzatzeko helburuarekin. Frantzia, Grezia, Irlanda, Alemania eta gu izan gara kasu honetan herrialde parte-hartzaileak.

Bigarren aldia da Hondarribiak parte hartzen duena Marseillan egindako ekintzetan. Desberdintasunak onartuz, berdintasun asko daude Marseilla eta Hondarribiaren artean, esate baterako, herria oso polita eta itsasoari lotutako aisialdiko ekintza asko.

Marseillan egindako elkartrukeetan Hondarribiko gazteek kirola egiteaz gain kirol hauen teknika ikastea izan dute helburu. Elkartrukea amaitzean beraiek kudeatutako ekintza antolatuak plazaratu zizkieten herriko gaztetxoenei.

Hondarribira bueltatzean udan hondartzan antolatzen dugun Hondar-kirolak Proiektuan beraien ikasketak praktikan jartzeko aukera izango dute gure gazteek.

Elkartruke hauek duten aberastasunak erraz ikusten dira, beraientzat ezaguna den esparrutik kanpo gazteek beraien gaitasunez jabetzen direlako. Bizipena oso aberatsa da, ezberdintasunak beldurra ematen digu hasiera batean, baina gero jendearekin egoteko dugun beharrak beldur hori gainditzera gonbidatzen gaitu.



Hockey-an aritzeko aukera izan zen



Klown antzezlanean gazte ugariak parte hartu zuen

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA ETA IRUN- GO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeintan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituen. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



BI ANAI

Etengabe errepikatzen den naturaren sasoi-gurpilean txori, katagorri, suge eta antzarek bi anaien -Paulo eta Daniel- istorioa kontatzen digute. Urtea joan urtea etorri, beti beste-lako eta aldi berean beti berdin agertuko den Obabako irudimenezko lurralde hori, baina, gizakien arteko handinahi, irrika eta grinen agertoki krudela da. Paulo eta Daniel anaia atzeratua dira giza-kudelkeria horren biktimak. Gizakiok errenditzen gaituen naturaren lege zaharrean bildurik, Paulo eta Danielen munduko ibilera itogarriak txori, katagorri, suge eta antzaren fabulen munduarekin egiten dute bat, eta irakurlearengan efektu zoragarria lortzen gainera: ihesaren eta kontsolazioaren sentipen askatzailea



HAMASEIGA- RRENAN AIDANEZ

Baserri giroko trajedia bat da eleberri hau. Indarrean eta afanean oinarritzen den kontakizuna: apostulari baten heriotza du gertaera nagusi. Pertsonaia desberdinen eta ikuspuntu desberdinetan oinarrituz, emakume baten bakardade eta sofrimenduaren ikuspegi sakona eskaini du idazleak. Ikuspuntuaren erabilera erabakigarria gertatzen da. Bernardo Atxagaren Bi Anairekin batera haxe da 80eko euskal nobelarik lortuena



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismo-ra arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimenez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzeko gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

Bio-175 Neem, intsektuekin bukatzeko produktu berria

Txuntxumelak, zure bio-supermerkatu txikiak, produktu berri bat eskaintzen dizue, Bio-175 Neem izenekoa.

Inzektizida ekologiko, uxagarri eta larbizida da:

Neem olioia

Neem olioia egokia da arrazoi hauengatik:

- Plaga ezagunen larbak eliminatzen ditu.
- Intsektuaren aurka ahalmen uxagarria dauka.
- Intsektuen ugalketa zikloak apurtzen ditu.
- Intsektizidarekin nahas daiteke. Gainera bere akzio eta kontrola hobetzen ditu.
- Intsektuak hil arte, jana alde batera uzten dute.
- Ekologikoa da, ez da batere toxikoa, eta biodegradable eta naturala da.
- Erabilera errepikakorrek espezie gogorren garapena galarazten du.

-Ingurugiroan mina murrizten du, intsektizida gutxi erabiltzen delako. Polinizatzen dituen intsektuak, adibidez erlea, eta beste intsektuz elikatzen diren intsektuekin, adibidez "mariquita de San Antón", begirunetsua da. Beraz, **BIO_175 NEEM** seguru, komenigarria eta bideragarria da.

-Ekologiaren arabera, intsektizida kimikoen alternatiba bat da. Nekazaritzan eta lorezaintzan erabil daiteke.

BIO-4000 ROTEN: Beste intsektizida ekologikoa,

Rotenona estraktuarekin egina. Landare eta laborantzian gomendagarria da intsektu hauen aurka: patatako sitsa, landare-zorriak, tryps, zuri eulia, armiarma gorria, eltxo berde, prays, glyphodes, beldar...

Nekazaritzan ona da arkakuso, zorri, akain eta zimitzen aurka borroka egiteko.

Intsektizida honek kontaktu, jate eta uxagarri bezala lan egiten du. Behetik gora aplikatzen da, hostoaren azpian dagoen intsektuari bustitzen eta organu begetaletan.

Tratamendua iluntzean burutu behar da. 48-72 ordu pasa eta gero beste tratamendu bat egitea gomendatzen da eta hirugarren bat lehenengo egin zenetik zazpi egun pasa ondoren. Ez da inoiz tratamendu prebentiborik egiten, bakarrik plagaren mailak gomendatzen duenean.

Txuntxumela Belartegiak emandako aholkua



ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

FUERA DE CONTROL

Will Graham ilun iraganarekin gizon bat da, bere lehen bizitza arriskutsua kasurik egin gabe bizitzen dena. Bere anaia desagertu ondoren, berriro itzultzen da ikertzeko. Berehala jakingo du egoera arraroetan hil dela. Inork ez dakite ezer honi buruz baina suizidio bat dela dirudi. Willek ez du zer gertatu zen jakin gabe geratu nahi eta bere anaiari mendekatu nahi dio. Bere ilun iraganari berriro itzuli beharko du.



DVD

JARHEAD EL INFIERNO VA POR DENTRO

Filme honi kritikak balorazio ona eman dio. "Jarheads" (cabeza bote) gazte talde baten istorioa kontatzen du Golko geran. Swoff-en bizitza frankotiratzale bezala erdi ekialdeko basarmortuetan kontatzen du. Honek eta bere adiskideak gerra batean borrokatzen daude ezer ulertu gabe eta ados ez daude kausagatik.



DVD

MEMORIAS DE UNA GEISHA

Filme hau Arthur Goldenen eleberrian oinarrituta dago. Geisha baten bizitza kontatzen du. Errauskine ipuina bezala parekatu daiteke.



DVD

DOOM

Marte dagoen ikerketa estazio batean zerbait gaizki atera da. Komunikazioak huts egin dira, baina hartu diren mezuak ez dira batere lasaigarriak. 5 mailako berrogaaldi jarri da eta bakarrik atera eta sar daitezke talde bat: arin erantzunako eskudra bat. Honek, oso ondo armatuta, misioi bat izango du: inork ez du hortik bizirik atera behar. Filme honek joku batean oinarrituta dago.



DVD

CRASH COLISION

Gizon baten gorputza agertzen da errepide batean. Honen eraginez, pertsona batzuen bizitza nahasiko da: polizia eta bere lankidea, fizikal baten emakumea, irlandar dendari bat, dirudun afroamerikar bikote bat. Beraien artean erlijio eta arrazista arazoak gertatuko dira.



DVD

MATCH POINT

Chris-en istorioa kontatzen du, teniseko irakasle batek bi emakume artean dagoena. Bere eskontzak ospea ematen dio baina bere pasioa izango den bere koinatan dago. Amerikar emakume ederra da Chris eta bere emakume Cloe artean jartzen dena. Tom-ek Chloen neba beste gertaerak eragingo ditu.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

Argazkien errebelatzea: Argazkilaritzeko materialak
-Eskaintza 13x18
-Eskaintza 2x1
-Errebelatu zure argazkiak CD jasotzea formatuan

CASIO Erloju eta Iratzargailuak
Zilarrak: eraztunak, belarritakoak, kate, pulitsea, piercing...
Blitxiak: urrez txapetuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

Gazteentzako ekintzak

LEHIAKETA

2006KO "ERDI AROKO AZOKA" ARGAZKI LEHIAKETA

Antolatzailea: Hondarribiko Udaleko Merkataritza eta Turismo Saila.

Gaia: Hondarribiko 2006 urteko Erdi Aroko Azoka.

Nora eraman: Argazki guztiak Udal Liburutegian entregatuko dira, Uztailaren 4an eta 5ean, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Erakusketa: Argazkiak, 2007ko ekainean, Zuloaga Etxean, erakutsiko dira.

LANA

DISNEYLAND PARISEN JARDUTEKO LAN ESKAINTZA

Baldintzak:

- Gutxienez 18 urte beteta izatea eta gehienez 30 urte izatea.
- Europako nazionalitatea izatea.
- Frantsesa jakitea.

Edukia:

Aukeraketa bat egingo da Donostian. Parte hartu ahal izateko, Gipuzkoako Eures zerbitzuarekin harremanetan jarri behar zara.

INEM-Eures Zerbitzua
Telefono zenbakia: 943440108
eures-gipuzcoa.morcillo@inem.es

EKINTZAK

UDALEKU IREKIA PROGRAMAKETA **UZTAILAREN 3AN** HASIKO DA. HAUR BAKOITZA **GOIZEKO 10ETAN** DAGOKION TOKIRA JOAN BEHAR DU.

UDA ABENTURAREN LEHEN TXANDA ERE **UZTAILAREN 3AN** HASTEN DA.



Nola deitzen zaio bide honi ?

Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean azken aste hauetan jaso den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Maiatzeko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Iosune Arestin Duinat** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko inguru konkretu baten berri galdetzen dizuegu. Guztiok badakigu non dagoen, askotan bide hori hartzen baitugu Guadalupera oinez igotzeko. Ez du izen ofizialik, baina bai denok ezagutzeko moduko izen bat. Hori da oraingoan galdetzen dizueguna.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, uztailaren 8a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Duela 100 urteko hondartzaren irudi bitxia



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berri. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilerok ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, gutxi gora behera duela 100 urteko argazki eder bat dakarkizuegu. Hondarribiak, zenbait gunetan urte hauetan jasan duen aldaketa haundia ikusteko oso baliagarria den irudi bat da.

XX. mende erdialdera Ramon Iribarren injeniariak eraldaketa haundia egin zuen Hondarribiko hondartzan. Espigoi bat eraiki zuen eta itxura berria hartu zuen hondartzak.

Hala ere, historian zehar hondartzak egitura arras desberdina izan du. Irudi honetan ikus daitekeenez, hondarra gaur egun imaginatu ezin dezakegun tokiraino heltzen zen.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzute.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
RESTAURANTE

Hierro Bidea, 876 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

JAIOTZAK

Apirilak 2an: Eneko Ochoa Ocio, Hondarribiko Jon eta Irungo Arantzazuren semea.

3an: IHARA Egiazabal Alza, Irungo Iñaki eta Hondarribiko Garbiñeren alaba.

4an: NESTOR Sorondo Sunsundegi, Hondarribiko Iñaki eta Hondarribiko Mirenen semea.

5ean: MARIA SYLVIA Harris Zabala, Harlington-go (Ingalaterra) Paul Jonathan eta Londresko Edurneren alaba.

7an: JONE Agirre Amunarriz, Donostiako Francisco Javier eta Hondarribiko Maria Arantzazuren alaba.

8an: EIDER Irastorza Marcos, Irungo Jon eta Irungo Elenaren alaba.

10an: JUNE Borja Garcia, Leringo Francisco Javier eta Irungo Maria Elenaren alaba.

21ean: INES Espinosa Ribera, Madriliko Borja eta Donostiako Elenaren alaba.

21ean: JURGI Sanz Sagarzazu, Donostiako Jon eta Hondarribiko Maria Joseren semea.

22an: EDURNE Diaz de Guereñu Castro, Hondarribiko Roberto eta Donostiako Cristinaren alaba.

23an: NAHIKARI Peña Cobo, Bilboko Tomas eta Donostiako Beatrizen alaba.

23an: ASIER Arrieta Urtizberea, Hondarribiko Jose Antonio eta Hondarribiko Maria Izaskunen semea.

28an: IGNACIO Jauregi Lopetegi, Hondarribiko Oscar eta Irungo Carolinaren semea.

29an: JULEN Kerejeta Herrera, Donostiako Aitor eta Tolosako Martaren semea.

30an: IÑIGO Lucas Salterain, Donostiako Zigor eta Hondarribiko Ainararen semea.

31an: IZARO Estevez Esnaola, Irungo Francisco Javier eta Irungo Beatrizen alaba.

31an: LUKEN Ezeiza Sarasola, Hondarribiko Agustin eta Donostiako Amaiares semea.

EZKONTZAK

APIRILEAN

22an: UNAI Aldalur Etxeberria, Errenteriakoa, eta **ALICIA Lekuona Martin**, Hondarribikoa.

22an: IBAN Gonzalez Mitxelena, Lezokoa, eta **AINZANE Gallego Aranburu**, Irungoa.

MAIATZEAN

6an: FERNANDO de Liras Fernandez, Errenteriakoa, eta **MARIA MAITE Barrasa Andres**, Hondarribikoa.

6an: AITOR Goñi Arbelaiz, Irungoa, eta **MARIA AINHOA Perez Elortegi**, Irungoa.

6an: GONZALO Txurruka Lazaro, Hondarribikoa, eta **AINZANE Etxeberria Rementería**, Irungoa.

13an: JON Bergaretxe Sunsundegi, Irungoa, eta **BEATRIZ Arretxea Fernandez**, Irungoa.

13an: FELIX Amunarriz Arbelaiz, Hondarribikoa, eta **AINZANE Iriarte Aizpuru**, Irungoa.

19an: JAVIER BENITO Muñoz Rodriguez, Tolosakoa, eta **MONICA de la Paz Zumalakarregi**, Hondarribikoa.

20an: DIEGO Susperregi Etxegarai, Irungoa, eta **MARTA Esteban Unzu**, Hondarribikoa.

27an: IOSU Alza Iturbide, Hondarribikoa, eta **ENERITZ Arkauz Mazkianan**, Aretxabaletakoa.

27an: FRANCISCO JAVIER Marzan Blas, Hondarribikoa, eta **TRACY SUZANNE Willians**, Shrewsbury-koa (Britainia Handia).

27an: ZIGOR Gende Carton, Hondarribikoa, eta **MERTXE Arruabarrena Narro**, Hondarribikoa.

27an: JON Gezuraga Markuerkiaga, Hollywood-ekoa (Estatu Batuk), eta **JONE Ausan Igiñiz**, Irungoa.

HERIOTZAK

1ean: FELIX Martin Luis, Congosto de Valdavia-koa (Palentzia), 75 urte, Zubieta kalean.

10an: JAVIER Ruiz Egaña, Debakoa, 78 urte, Donostia kalean.

11an: JOSE Gonzalez Egilegor, Hondarribikoa, 78 urte, San Pedro kalean.

13an: MARIA SALUD Sanchez Romo, Salamancakoa, 76 urte, Zubieta kalean.

19an: VICTORIANO Arrieta Ormazabal, Ormaiztegi-

koa, 91 urte, Loraitz bi.

23an: MARIA GUADALUPE Fagondo Casaliz, Hendaiakoa, 80 urte, Erribera beheka kalean.

25ean: EUGENIO Olazabal Galarza, Hondarribikoa, 57 urte, Amute kalean.

26an: ALBERTO Portu Telletxea, Irungoa, 84 urte, Gibeleta kalean.

27an: EUSEBIO Moran Sagarzazu, Hondarribikoa, 74 urte, San Pedro kalean.

MAIATZAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Tenperaturarik gorena:	35,3° C, hilaren 17an.
Tenperaturarik beheena:	7,2° C, hilaren 1ean.
Bataz besteko tenperatura:	17,2° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 70
Euri-litroen kopurua:	40,5 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 7an 11,7 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 7ko 14,20etan, 34,2 litro.
Egun euritsuak:	16 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	egun 1
Behe-laino egunak:	0 egun
Ihintz egunak:	5 egun
Haizea >50 Km/ord.	3 egun
Eguzki kopurua:	190,7 ordu
Bataz besteko presioa:	1018,2 milibar
Presiorik gorena:	1030,1 milibar, hilaren 25ean
Presiorik beheena:	1000,0 milibar, hilaren 21ean
Haizerik indartsuena:	hilaren 22ko 3,30tan, 58 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRADIAN MAIATZAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 8.219 kilo.
Antxoa (*Engraulis encrasicolus*): 126.249 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 3.062 kilo.
Boga (*Boops boops*): 2.732 kilo.
Sardina (*Sardina pilchardus*): 2.502 kilo.
Berdela (*Scomber scombrus*): 8.144 kilo.
Korroko (*Chelon Labrosus*): 517 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 3.316 kilo.
Erla (*Lithognathus mormyrus*): 631 kilo.
Zarakuntza: 3.775 kilo.
Bestelakoak: 513 kilo.

MAIATZAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 350 euskaraz, 1012 gaztelaniaz eta 97 bestelakoak. Guztira: 1459 liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 94 euskaraz, 132 gaztelaniaz eta 31 bestelakoak. Guztira: 257 liburu.

Bazkide berriak: 28 gizon eta 35 emakume. Horietatik 40 heldu eta 23 haur. Guztira 63.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:
Euskeraz: UNGERER, Tomi.-Hiru bidelapurrak.- Kalan-draka.
Gaztelaniaz: TAKAYA, Natsuki.-Fruits Baskets.- Norma.

Helduak:
Euskeraz: MAIA, Jon.-Riomundo. - Txalaparta
Gaztelaniaz: BROWN, Dan.- La Conspiración.- Umbriel.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MAIATZAN

Altak: Jaiotzak: 16, eta kanpotik etorriak: 71
Bajak: Hildakoak: 9, eta herriatik joanak: 63
Biztanle kopuru orokorra: 16.301 bizilagun.

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



2. FUENTERRABIA
Hotel Jaurégui
L. Roisin fot. - Barcel'na

